

Gibraltar itsasarteko gorgonia zuriak.

Eunicella gorgonia zurien generoa da. Knidarioak dira hemen, Gibraltarreko itsasartearen uretan, benetako zelaia sortzen dira. Animalia honen koloniak landare hosto gabedunen aspektuarekin plano bakar batean adarkatzen dira, beraz batzuetan itsas korronteen esku dagoen abaniko zabaldu baten antza dute.

Beste batzuetan, gorgonia zuriek belardiak osatzen dituztenean ia inguruan organismorik gabe, zuhaixken udazkenean izaaten duten itxura dutela ematen du. 70 cmko altuera lortzen dute eta itsas korronteeek duten norabiderantz orientatzen dira, uraren oldarra eusten uzten dien moldaketa ergonomiko perfektu batekin.

Eskeletoak kornea nuklear zati bat du, espiculas osatua eta kaltzio karbonatoz osatutako matrize batekin zimentatua; horrelako espikula karedunak gorgonia espezie bakoitzaren ezaugarriak diren erliebe formekin apainduak daude. Beztalde kanpoko azala gogonina deritzon karbonato kaltzikodun material batez eztalia dago.

Gorgonia zuriaren polipo bakoitzak 3mm neurtzen dute eta bakoitza indibiduo bat da. Bi errenkadatan kokatzen dira arrametan zehar.

Koloniaren aspekturik ezagunena polipoak barnealdean dituztenean da, baina bizitza aurkitzen dute zabaltzen direnean eta garro laburrak agitatzen dituztenean.

Gorgonien inguruan jira biraka, beste animalia batzuk egon ohi dira, arrain asko haien artean. Egia esan, guztia sare trofikoaren hari mehei lotua dago.

Urak dauka oxigenoa eta elikagaitzat dituzten partikulak; bizirik egoteko eta azteko ez dago beste modurik ura erakartzea eta iragaztea baino.

Ekaina eta uztailaren artean, ernalketaren ondoren, larba planktonikoak ateratzen dira, hauek. Bizirautea lortzen badute, hondo harritsueta finkatuko dira plaka basal baten bitartez eta kolonia berri bat osatuko dute.

Gorgonia zuria baliagarria da beste animalia batzuentzat, euskarritik bezala balio die. Arramak talaia on bat dira aszidientzat, posizio pribilegiatu horretaz obeto aprobetxatzen dira itsas korrontez.

Gorgoniaren bizkarrean, itxura dotoredun, kapela baten forma du, baina errukigabea; aszidia baten azpian geratzen da polipo bakoitza, sarbiderik gabe elikagaira eta oxigeno betetako urik, gabe hil egingo da.

Kotoiaren loreak bezain etereoak, aszidien koloniak gorgonien kolonia asfixiatzean amaituko du, orain jadanik guztiz minerala da, korrontearen bila dabiltzan polipo gabe.

Baina coráligenoan arremanak korapilatsuak dira. Badirudi Szidiek beti ez dituztela polipoak itotzen. Batzuetan, gorgonia zurien arrametan kokatzen dira, gertu, oso gertu, baina urratu gabe; honela kimiko aktibodun defentsa-sistema bat lortzen dute: harrapariak aszidiara ez dira hurreratzen gorgonia bakoitza koroatzen duten polipoen zortzi garro erresumingarriren ondorioz. Aszidiari doan ateratzen zaion arma bat da.

Arriskuak zelatan dabilenean, gorgonia zuria beti prest dago ñimiñoak diren polipo erresumingarriak ateratzera, haren natura mineralaren kontrapuntu biziduna.